

# TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2019.

## Azken epaia

TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK 2019 deialdira aurkeztu diren proposamenak banan-banan sakon aztertu ondoren, epaimahaia osatu duten **Amaia Pavon Arrizabalaga, Edorta Arana Arrieta eta Tania Arriaga Azkarate** jaun-andreek, idazkari lanetan jardun duen Joxe Rojas Granjaren laguntzaz, ondoko hau

## ERABAKI DUTE:

1.- Honela banatzea 2018ko deialdiko TOKIKOM KAZETARITZA SARIAK:

### AZALIK ONENA kategoria

**Saria ematea Puntua astekariak aurkeztutako "Antropozenoa" azalari.** Honako arrazoi hauek nabarmendu ditu epaimahaia saria emateko orduan:

- Portadaren diseinu arriskatu eta modernoa.
- Oso elementu gutxi konbinatuta, oso irudi indartsua lortu izana, mezu argia transmititu eta ikuslea ukitu egiten duena.
- Azaleko osagaien konposizio orekatu eta zaindua, dotorezia handiz egindakoa.

**Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:**

- **Barren astekariak aurkeztutako "Krosaren egun handia".** Aukeratutako argazkiaren indarra, dinamismoa eta plastizitateagatik.
- **Guaixe astekariak aurkeztutako "Bizipozez bizi".** Argazkirako egindako motibo aukeraketa ezin aproposagoagatik, eta argazkiaren gainean elementu grafikoak txertatzeko modu zaindu eta harmoniatsuagatik.

### EDUKIRIK ONENA kategoria

Eztabaida luze baten ondoren, epaimahaiaren erabakia da **EDUKIRIK ONENA kategoriako saria ematea Kronika Aldizkariak aurkeztutako "Urik gabeko urtegi, orain laborategi"** erreportajeari. Besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

- Artikutzako Enbieta urtegiaren hustutzea aitzakia hartuta, Kronikak erreportaje eredugarria landu du, hainbat aldetik begiratuta:
  - Gaiaren trataera sakona egiten du, tokiko eraginetik abiatuta baina hartara mugatu gabe. Gainera, hainbat kazetaritza genero uztartuta zatidura ezberdinen bidez.
  - Dokumentazio lan paregabea eginda, iturri anitz eta ondo jantziak erabiliz, eta dokumentuz zein irudiz bikain hornituta.
  - Emaizta oso pieza informatibo eta pedagogikoa da, gaiak jakin nahi duen edozeinentzat oso baliagarria
- Epaimahaiaren iritziz, lan honek bikain erakusten du nola uztartu daitekeen arazo global baten trataera ikuspegi lokal batetik.

**Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:**

- **Uztarria hilabetekariak aurkeztutako “Heriotza parez pare” erreportajea.** “Death Cafe” saioak ardatz hartuta, Uztarriak ausardiaz heldu dio heriotzaren gaiari, oso trataera duina emanaz desorekan jausteko arrisku handia duen gai bati. Kazetariaren begirada uztartzen du lehen eskuko lekukotzekin, tokikotik abiatuz interes unibertsaleko pieza sortuz.
- **Guaixe astekariak aurkeztutako “1918ko dolu egunak” erreportajea.** Kasu honetan, ere, mundu mailako arazo bat, 1918ko gripe pandemia, tokiko errealitatera ekarri, eta izurriteak Sakanan izan zuen eragina kontatu du Guaixek, hemerografia eta dokumentazio lan izugarria eginez, hala eduki nola irudi aldetik. Ikerketa lan izugarria, gustura irakurtzeko moduan idatzia.

#### **IKUS-ENTZUNEZKOAK kategoria**

Atal honetan honakoa izan da erabakia:

**Saria ematea Goienak aurkeztutako “Debagoiena eraldatzen” bideo sortari.** Honako meritua hauek aipatu dituzte epaimahaikideek:

- Gaiaren interesa, sakontasunez landu dira gizarteari eragiten dieten hainbat problematika, tokiko ikuspegia galdu barik.
- Bideoaren faktura bikaina, enkoadreak, argiztapena eta soinu kalitatea bikain zainduta.
- Elkarrizketen muntaketan egin diren errealizazio hautu originalak. Elkarrizketen arteko loturei erantsi zaizkie balio handiko elementu narratiboak, metafora bisual ederrak sortuta.

**Saridunarekin batera, beste bi lan ere nabarmentzea finalista gisa:**

- **Aiaraldeak aurkeztutako “Bizitzak erdigunera eramane dituzte milaka emakumek\*\*”** martxoaren 8aren inguruko ekimenak eskualde osoan xehe-xehe jarraitzeko ahalegin handiagatik, gau eta egun, herri bakoitzetik ekitaldi ezberdin bat ekarri, edizio lan apartarekin.
- **Goienak, GiTBk, 28 Kanalak eta Erlo Telebistak elkarlanean aurkeztutako “Euskaraldia” bideo sorta.** Tokian tokiko errealitatetik abiatuta, eta elkarlanean, nazio mailako interesa duten edukiak sortzeko ahaleginagatik, eta ahalegin horren atzean dauden koordinazio lan eredugarriagatik.

2.- Ohiko sariez gain, epaimahaiak **bi aipamen berezi ere** egin nahi izan ditu:

- Alde batetik, **Hirukak aurkeztutako “Bayandalai, elur-oreinen azken artzaina?” argazki-erreportajearentzat.** Tokikoetan oso gutxitan lantzen den generoa izanda, lan honek ederki islatzen baitu nagusiki irudiak (irudi oso zaindu eta ederrak, gainera) erabilia, istorio oso bat kontatu daitekeela. Lan zehatz honen bikaintasunaz gain, epaimahaiak formatu horren aldeko apustua ere saritu nahi du aipamenarekin.
- Bestetik, **Anbotok aurkeztutako “Martxoak 31” portadako ilustrazioak ere** aipamena merezi du epaimahaiaren iritziz, ilustratzailearen lan adierazgarri eta hunkigarriagatik, irudi bakar batean istorio oso bat kontatuz.

Amaitzeko, epaimahaiak berriz ere aipatu nahi du jasotako lan guztien maila, toki komunikabideetan egunero eta txikitasantetik egiten den lan eskergaren erakusgarri.

Bilbon, 2019ko urriaren 8an

  
Joxe Rojas,  
idazkaria